# Tinko




Altzako H.B.ren aldizKaria



## ZURE BORROKA JARRAITUKO DUGU

Agur, Xanti.
Hil zaituzte,
Franco-kume madarikatu horiek,
Arrosa gorriz jantzitako
adar usteldu horiek,
Egunero bere ahoa "Demokrazia"
hitzarekin betetzen dutenek,
Baina, zer pentsatzen duzue?
Agian, lore polit bat kenduz,
haren sustraiak hiltzen direla...
Jakia ematen dion lur hortatik
mila lore berri sortuko ez direla?
Ba, alferrik ari zarete,
Euskal Herriko
auzo langile honetatik
errepikatzen dizuegu
behin eta berriz
EZETZ!!
EZ DUGULA ETSIKO!!!
IRABAZIKO DUGULA!!!!

## LEPOAN HARTU TA SEGI AURRERA

## ELKARTASUNA

# urge tomar conciencia

Santi Brouard ha sido asesinado, por ellos... los de siempre (los fascistas), los de Atocha, los de Grimau, los de Miguel Hernández, los de los cinco ejecutados en setiembre del 75, los de tantos cientos de amigas/os y compañeros/as, luchadores por la libertad, esa libertad que se conquista con la lucha y, a veces, con la vida como en este caso.

Que no se confunda nadie, ésta es la libertad de los desposeídos, de los que no tienen nada aun siendo dueños de todo, ya que somos los que creamos riqueza.

Ellos, los terroristas, "los de siempre" están aquí conmemorando "su" noveno aniversario.

Señor Barrionuevo, puede estar satisfecho de su trabajo, acaba de obtener el fruto de sus condecoraciones y tributos a fascistas y torturadores.

Si esto es la democracia, no nos queda más remedio que no creer en ella, pues, por democracia conocemos más de dos millones de parados a los que en breve les serán aplicadas las leyes antiterroristas, pues defender el puesto de trabajo se ha convertido en un problema de "orden público". También, por democracia conocemos cientos de presos políticos y sociales, así como muchos cientos de exilados.

La situación nos parece grave, sobre todo porque no están a la vista las medidas políticas, sí en cambio, se presenta como principal medida... "la represión" por medio de leyes orgánicas (apertura de centros penitenciarios de alta seguridad) y lo que es más grave: el exterminio físico de todos aquellos que no aceptamos la legalidad de este sistema.

No nos cabe el desánimo, vuestra lucha es la nuestra.
"Saludos revolucionarios".

COMITE DE EMPRESA Y SS DE CCOO DE ROK (MADRID)

KAIXO: LEHENENGO ALE HONETAN, AURKEZPEN TXIKI BAT EGITEA BEHARREZKOA DA. GURE HELBURUA ALDIZKARITXO HAU KALERATZEAN BESTE BIDEETATIK ATERA EZIN DAITEZKEEN GAI INTERESGARRIAK ZURI JAKIN ERAZTEA IZAN DA.

ALDIZKARI HAU DELA MEDIO, ALTZA OSATZEN DUTEN AUZOETAKO ERA GUZTIETAKO ARAZOAK KALERATZEN ETA ERANTZUN ZUZEN BAT EMATEN AHALEGINDUKO GARA.

BADAKIGU HAU EZ DELA LAN ERRAZA.

ALDIZKARI HAU OSATZEN DUGUN NESKA-MUTILOK EZ DUGU INOLAKO ESPERIENTZIARIK, BAINA GURE ALDETIK AHAL DUGUN GUZTIA EGINGO DUGU.

HERRIARENTZAT ALDIZKARI BAT DENEZ, ZURE APORTAZIOA EDO LAGUNTZA ESKERTZEKOA DA, BAI ZURE ERITZIAK JASOTZEKO, BAI GAUR EGUNGO EGOERA POLITIKOARI ERANTZUNAK EDO ESKAKIZUNAK ESIJITZEKO.

BERAZ, KONBIDATZEN ZAITUGU ALDIZKARI HONETAN PARTE HARTZERA.

## Borrokan antolaturik,

Organizados en la lucha



## irabaziko dugu

venceremos



NOS PRESENTAMOS ANTE VOSOTROS POR PRIMERA VEZ PARA INTENTAR DAR SALIDA O SACAR A LA LUZ TODOS AQUELLOS TEMAS QUE POR OTROS MEDIOS NOS SERIA CASI IMPOSIBLE.

CON ESTA REVISTA VAMOS A INTENTAR QUE TODOS LOS PROBLEMAS DEL BARRIO, O MEJOR DICHO, ESTE CONGLOMERADO DE BARRIOS DE LA ZONA DE ALTZA, TENGA POR NUESTRA PARTE UNA PUBLICA RESPUESTA Y TODO TIPO DE PROPUESTAS DE SOLUCION, SOLUCIONES QUE NOSOTROS/AS CREEMOS NO SON FACILES Y RESPUESTAS QUE TAMPOCO SON POCAS. PERO UNA REVISTA EN LA QUE VAMOS A ABARCAR VARIOS TEMAS.

EL EQUIPO QUE COMPONEMOS ESTA REVISTA ESTA COMPUESTO POR MUJERES Y HOMBRES DEL BARRIO QUE SIN EXPERIENCIA PRACTICA, NOS HEMOS LANZADO A ESTA TAREA, INTENTANDO HACERLO LO MEJOR POSIBLE.

TAMBIEN PRETENDEMOS QUE SEA CARTA DE DENUNCIA PUBLICA DEL ENTRONCO POLITICO ACTUAL, DESDE LA CUAL TU PUEDES EXPONER O APORTAR TU PUNTO DE VISTA, YA QUE ES UNA REVISTA AL SERVICIO DEL PUEBLO.

QUEDAS PUES, INVITADO/A A PARTICIPAR EN LA REVISTA Y EN LAS ASAMBLEAS QUE ES DONDE EN REALIDAD SE RECOPILA Y RECOGE APORTACIONES E INFORMACION.

# Euskararik gabe, ez dago Euskadirik

Gure herri hau, euskaldunen hizkuntz zahar, aberats, baztertu eta zapalduaren gordeleku bat izan da betidanik. Egun, berriz, gure euskararen egoera erabat aldatu da, edonork ikus dezakeen besala. Kalean, ia ez da euskaraz ezer entzuten, Altza kaskoan ibiltzen diren baserritar eta zenbait gazte ikastoletan ibili direnak ezik. Benetan LOTSAGARRIA!

Baina badago oraindik gure herriko araso guztietaz besala etsi eta nekatzen ez den jendea ere. Batzunk, duela zenbait urte, edozein toki ezkutuan, euskara irakasten saiatzen ziren. Beste batzuk, neska-mutil gazteak euskarak bizitzen duen larritasunetik ateratzeko antolatu direnak. Denen artean Alfabetatzen Euskalduntzen Koordinakundea -AEK- erditu dute, eta igaz Altzan guztiek euskara ikas dezagun, Euskaltegi bat zabaldu zuten, AZPIL EUSKALTEGIA, hain zuzen. Herrera auzoan, goardia Zibilen koartela izandako etxean kokatua.

Hemen kontatzen dizuegu haiekin izan genuen solasaldia.

**Herri Batasuna:** Lehenengo helduen euskalduntze lan honetan Altzan eman diren urratzen historia labur bat egin ezazue.

**Azpil Euskaltegia:** Orain dela hamar bat urte lau edo bost lagun hasi ginen (hauen artean gaur Herrera de la Manchan Preso dauden Tito eta Fernando aipatzekoak dira) eta Klaseak Eliz azpian ematen genituen. Hasieran lau edo bost talde egin genituen. Gero, eta joan den urterarte Eskola Nazionaletara pasa ginen, ikasle eta irakasle kopurua handituz. Guk ez genuen experientziarik irakaskuntza mundu honetan eta noski Klaseak boluntarismo hutsez ematen genituen.
Herreran ere beste talde bat arduratu zen lan honetaz, garai berean; gau eskola horretan ere ondo funtzionatu zen auzoko jendea euskaldutzen; esan dezakegu gau eskolen bizia hamar urtekoa izan dela orokorrean.

H.B.= Zeintzuk izan dira Euskaltegia eraikitzeko arrazoiak?

A.E.= Esan dugun besala gau eskola Altza eta Herreran zeuden, Altzakoa esan beharra dago AEK barruan egon dela betidanik. Ikasle-kopurua handitzen zihoala ikusirik, eta zentsoa begiratuz hau auzo handi bat dela kontutan harturik, positibo bezala jo genuen Euskaltegia zabaltzea, auzoko jendeak leku egoki bat izan zezan euskalduntze hori burutzeko. Nolabait Altzako Herrera da, Horregatik egin genuen hemen, nahiz eta bertako gau eskolakoek gurekin bat ez etorri egin genituen harremanetan, AEK erakundea ez bait zuten onartzen. Ahaleginak egin genituen baina alferrik.

H.B.= Noren aldetik jaso duzue laguntza Euskaltegia martxa jartzeko orduan?

A.E.= Argi eta garbi esan behar da Instituzioek ez dutela inolako laguntzarik eman.
Etxea AEK-K pagatu du. Kontutan harturik Urrian hasten direla klaseak eta Etxea Abuztuan aurkitu genuela, ahalegin guztiak egin genituen garaiz kompotzeko, auzoko jendearen laguntzari esker lortu genuen kurtso hasierako txukuntzea, nahiz eta oraindik komponketa dexente egin behar ( humedadea, eskailera, kampoko aldea, etab.)

H.B.= Zembat jende eta zein maila daude AZPIL Euskaltegian?

A.E.= AEK-ren beste zentruetan besala 6 maila eta Alfabetatze kurtsoa daude Maila bakoitza 8 ikasle inguru osatzen dute, maila bakoitzean talde bat edo gehiago egon daiteke.




1) Maila Taldeak

1..................1
2..................2
3..................2
4..................2
5..................1
6..................1

Intensiboak / 5 ordutakoak

1..................1
2..................1
3..................1
4..................1

2) Ikaslegoa jende gaztea da; erritmo normalean ikasten dutenak Larratxo, Herrera eta Altzakoak dira, baina intensiboak egiten ari direnak gehienbat Donostikoak dira. Irakaslegoa gaur egun kampokoa da gehienbat, baina bertakoak ere badaude.

Kurtso osoa 200 ordu dira eta Urritik ekainera ematen dira; intensiboak aldiz 375 ordu dira eta 4 hilabetetan egiten da, baina noski egunero 5 ordu emanez. Orduak honela banatzen dira: Astelehetatik ostiralera 1 eta 5 ordu, astelehetatik ostegunera 2 ordu

H.B.= Zein metodologia erabiltzen duzue?

A.E.= Orain arte erabili izan diren liburu, fitxa, etaba. nahiko aspergarriak bihurtu ziren azken dembora, eta jendeak hasieratik hitzegin dezan komenigarriagoa iruditu zitzaigun metodologia komunikatiboa erabiltzea gauzak buruz ikastea baino Hau da, jendeak gauzak kontextu konkretuetan dauden bezala ikasdezala. Hau hasieran kostatzen da baina azkenean ikasleak lortzen du erreztasun hori. Oraindik ez dugu lortu ikaslearen partizipazioa guztiz orokorra izatea, zeren jendeak oraindik, eta hau kendu behar den ohitura bat da, irakaslea eta ikaslea desberdinak bezala jotzen ditu.

H.B.= Nola lortzen duzue esandako partizipazio hori?

A.E.= Batzuetan grabazioak erabiltzen ditugu, hau da, elkarrizketa edo egoera konkretu bat grabatzen dugu, eta gero hau klasean jartzen dugu, ikasleak ulertu eta gero errepresentatzeko. Jendeak nahiko ondo hartzen du metodo hau eta klaseak oso atseginak egiten dira. Beste batzuetan antzerkia soilik egiten da edo gaiaren bat komentatu, etab. Ikasleak hasieratik hitzegiten du eta gauzak buruz ikasi.

3) Gure egoera ekonomikoa oso larria da, nahiz eta AEK-k obrak pagatu, nonbaitetik atera beharko dugu dirua, jakinez Instituzioak ez dutela deus ere ematen. Aurten hemen nahiko obra egin beharko dugu, eta noski zerbait pentsatu behar dugu dirua lortzeko.
Beste funtzionamendu normalari dagokionez, bi dira gure diru iturriak, batetik ikasleek pagatzen duten matrikulak, ikasturte osoa 16.875 pezetakoa delarik, eta bestetik gobernuak ematen duen subentzioa.

H.B.= Erakunde batetaz hitzegiterakoan, beti lotzen da hau partidu konkretu batekin, nola definituko zenuteke AEK-ren irudi politiko hori?

A.E.= Honera mota guztietako jendea datorrela argi dago. Ikasleak ez direla partidu konkretu batetakoak esan genezake, denetatik dagoela baizik. Gehienak euskara geurea dela sentitu eta defenditzen dutelako ikasten dute, nahiz eta lan postua lortzeko eta polita delako ikasten dutenek ere hauen artean egon.

H.B.= Zer zenuteke aurten gobernuarekin izan diren tira-bira horietaz eta Azpileko ikasleen erantzunaz?

A.E.= Oso positibo bezala ematen dugu jaso den erantzuna, bai orokorki, bai Euskaltegian konkretuki. Jendea kalera atera da euskararen plangintza orokorra eta Gobernuari geurea dena exijituz. Hemen asnbladak etab. egin dira eta ikasleak parte handia hartu du horietan, gainera jendeak uste baino Klase-ordu gutxiago galduz. Jendeak argi ikusi du euskarak laguntza behar zuela eta kalera atera da hori exijetzera.

H.B.= Zuen helburuetako, esango genuke garrantzitsuenetako bat, Altza euskalduntzea izan da, zer esango zenuteke horretaz?

A.E.= Hemen ez dugu euskal girorik inondik ere ikusten. Euskaltegia irekitzea eta klaseak ematetik aparte, ba, giro hori sortzea geure helburuetan zegoen noski Hemen interesa dago euskara aurrera eteratzeko, ete jendea lehen baino konstanteagoa dela iruditzen zaigu. Beste gauza bat da nola lortu Altza euskalduntzea, baina denen artean lortuko dugula dudarik ez dugu.

H.B.= Zergatik buruz, argi dago. HABE Gobernuak Kontrolatzen du, orduan gehiena honek subentzionatzen du. Eta ikasle-kopuruari buruz, HABEK zein ikasle gutxi dituen eta zergatik ez dituen gehiago onartzen, euskalduntzea bere kargu hartuz pentsatzekoa dela uste dugu.

H.B.= Zergatik dago. hainbeste diferentzia jende eta diru-kopuruari buruz AEK eta HABE-ren artean?

A.E.= Diruari buruz, argi dago. HABE Gobernuak kontrolatzen du, orduan gehiena honek subentzionatzen du. Eta ikasle- kopuruari buruz, HABE-k zein ikasle gutxi dituen eta zergatik ez dituen gehiago onartzen, euskalduntzea bere kargu hartuz pentsatzeko dela uste dugu.

H.B.= Amaitzeko, zerbait gehiago esan nahi al duzue?

A.E.= Euskaltegiari buruz, ba, hemen gaudela eta jendeak euskara ikasi eta erabili nahi badu, non aurkituko du Azpil baino leku egokiagorik? Klaseetatik aparte aurten ahaleginduko garela auzoan zerbait antolatzen, hau noski guztion laguntzarekin, espero dugu.



TORTURA ETXETIK




KULTUR ETXERA

# ¿ Como votó Altza en las ultimas elecciones ?

**HERRERA**

Comprende todo Herrera (Plaza San Luis y alrededores, San Antonio, carretera general, Montesol, todas las casas metidas entre el Alto de Miracruz y la vía del tren, que es donde comienza Intxaurrondo; desde la estación del tren hacia arriba, Euskaltegi, villas dobles, Picabea y parte de Oleta; Paseo de Larratxo hasta la plaza Josu Artetxe, caserios de alrededor del campo de fútbol.

| | PSOE | PNV | HB | EE | AP | AUZOLAN | PCE | PC(M-L) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| CENSO: 6788<br>VOTOS: 4136 | 1390 | 1075 | 901 | 415 | 175 | 83 | 42 | 2 |

Zona de mayoría nacionalista al sumar PNV-HB-EE 2391 votos, y teniendo en cuenta que el engorde del PSOE, se debe a que en este colegio vota parte del Paseo de Larratxo, compuesto en su mayoría por gente de otros pueblos del Estado Español, y que todavía no han tomado conciencia de la realidad nacional vasca.

---

**COLEGIO SAN JOSE DE CALASANZ**

Comprende Alza casco, caseríos desde Alza hasta San Marcos y bajada a Martutene, casi todo Larratxo, Bertsolari Txirrita, Las torres, San Isidro, etc.

| | PSOE | PNV | HB | EE | AP | AUZOLAN | PCE | PC(M-L) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| CENSO: 3225<br>VOTOS: 2125 | 1105 | 568 | 446 | 257 | 65 | 24 | 18 | 1 |

Sumando los grupos nacionalistas (1271) hacen una ligera mayoría respecto del PSOE; por lo dicho antes sobre la composición social de Larratxo y barrios nuevos de Altza, gran fuerza de la opción española o sea del PSOE; si pusiéramos todos un poco de nuestra parte, podríamos bascular esta zona hacia el campo abertzale, por haber mucha juventud, que se siente vasca, aunque haya nacido fuera, y por la poca base política de los adultos foráneos, que son los que en su mayoría han votado al PSOE.

---

**ESCUELAS DE ARRIBERRI**

Comprende Arriberri, Santa Bárbara, Los Boscos, Arrizar, Roteta, Parte de Oleta y Picabea.

| | PSOE | PNV | HB | EE | AP | AUZOLAN | PCE | PC(M-L) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| CENSO: 3931<br>VOTOS: 2629 | 1351 | 463 | 376 | 221 | 110 | 32 | 17 | 1 |

Esto ya es el descalabro; entre las tres fuerzas nacionalistas (1060) no sumamos ni lo suficiente para ganar al PSOE. Lo que quiere decir que no nos movemos en absoluto por ahí (el ejemplo es la poca respuesta que se da en esta zona en las luchas contra la política genocida del Gobierno español hacia Euskadi). Tenemos que conseguir que por lo menos parte de esos 376 votos nuestros, se organizen establemente, si no lo tenemos claro. A CURRELAR!!!!!

---

**ESCUELAS DE BUENAVISTA**

Comprende Buenavista hasta Pasaia, carretera de Altza hacia los Boscos, parte de Oleta.

| | PSOE | PNV | HB | EE | AP | AUZOLAN | PCE | PC(M-L) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| CENSO: 1084<br>VOTOS: 685 | 171 | 216 | 182 | 52 | 40 | 8 | 3 | 1 |

Esta zona igual está más ligada a Pasaia que a Altza en la vida práctica; podemos ver que el voto cambia al cambiar la composición social (más gente de aquí que de fuera). Entre los 3 grupos nacionalistas sumamos 450 votos, lo cual es más que el doble de los del PSOE. Está claro esto no? De todos modos es zona de poco movimiento, al ser un barrio pequeño y de paso.

---

**MOLINAO**

Comprende Molinao, villas que están más cerca de Pasaia que del núcleo urbano de Altza, Darieta.

| | PSOE | PNV | HB | EE | AP | AUZOLAN | PCE | PC(M-L) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| CENSO: 1332<br>VOTOS: 861 | 195 | 300 | 215 | 103 | 21 | 18 | 3 | 2 |

Aquí barremos. Le hacemos un triple al PSOE. Mayoría de población autóctona. Aquí el objetivo sería superar al PNV. Teniendo un poquito en cuenta este barrio se podría conseguir. Tenemos la razón y el tiempo de nuesta parte. <u>LO CONSEGUIREMOS</u>



Compañeros,
si sabeis donde duerme la luna blanca
decidla que la quiero
pero que no puedo acercarme a amarla
porque aun hay combate.





...

Compañeros,
si conoceis el canto de la sirena
allá en medio del mar
yo me acercaría a buscarla
pero aun hay combate.
Y si triste azar me detiene
y caigo en tierra
elevar mis cantos y un ramo de flores rojas
a quien tanto he amado.

Compañeros,
si buscais las primaveras libres
con vosotros quiero ir
que para poder vivirlas
me hice soldado.







6-11-73

# GAUR EUSKALDUNA BIHAR?



UNA "CUADRILLA" DE OBREROS TRABAJANDO DURAMENTE SOBRE UN "DESGRACIADO" DE EUSKALDUNA



SIN COMENTARIO



LOS OBREROS ENCONTRARON ENSEGUIDA EL NOMBRE DE SUS REPRESORES.



CONTRA EL PARO, DESPIDO, ASESINATO, TORTURA REPRESION !! LUCHA OBRERA-....... SOLUCION!!

Somos un grupo de jóvenes del barrio,que estamos luchando por una casa de la juventud en la zona de Herrera,Altza y Larratxo.
Con esto queremos lograr un local desde donde poder coordinar una serie de actividades culturales para la juventud y la no juventud de nuestro barrio.
Dentro de la casa de la juventud,por supuesto con unos estatutos de régimen interno,entrarían a formar parte grupos del barrio como:

- --Posibles grupos de teatro.
- --Grupos de dantxa.
- --Grupos de montaña.
- --Scouts,asociaciones de jóvenes y jóvenes en general del barrio sin ningún tipo de actividades.

Por eso nos estamos moviendo y ya tenemos una serie de actividades preparadas para empezar como puedan ser:charlas-coloquio sobre temas de actualidad,semanas con proyecciones de peliculas por ejemplo una que tenemos ya proyectada es una semana sobre la situacion en Centro-américa y como proyecto principal,una semana dedicada a los jovenes con toda una serie deactividades.
pero para esto último necesitamos una subvencion por parte del ayuntamiento donostiarra,que hasta el momento no esta apoyando las iniciativas juveniles.
Por último,si estas dispuesto a participar en esta movida,acude a las reuniones de la asamblea de jovenes que ya se iran anunciando por el barrio,pues creemos que es esta la única forma de coordinación entre los jóvenes,para poder conseguir nuetra casa de la juventud.
Te esperamos en AAVV de Herrera (Herri-pe).

Asamblea de jóvenes.



## ZU ERE H.B. ZARA

Beti izan da lan zaila, bai eskatzen, bai ematen duenarentzat diruaz hitzegitea. Guri orain eskatzera behartu gaituzten zenbait arazo esplikatzera gihoakizu:

Orain arte Herri Batasunak, Instituzio, hautatu, Parlamentu Vascongadotik jasotzen zen diruarekin funtzionatu du. Gaur egun bide horiek ukatu dizkigute.

Hau izan da kaleratu ditugun bonoen arrazoi bakarra. Diru behar dugu eta noski, zure laguntza. Bonoak 200 pezetakoak dira eta zure hileroko sakrifizio txiki hau eskertzen dugu, aldez aurretik. Gure ustez ZU ERE H.B. sentitzen bazara, diru hau gogoz emango duzu.

No te fíes si no lleva el sello del mes en curso !!!




Hilabete egokiaren zigilurik ez ba du eramaten, EZ HARTU !!!

Hablar de dinero resulta siempre difícil y engorroso tanto para el que lo hace como para el que tiene que desembolsar. Nosotros nos vemos esta vez quizás en la postura mas incómoda, la de pedir. No pedimos porque sí, sino porque nos hace falta. Vamos a hacer un pequeño balance económico:

Hasta ahora hemos venido funcionando con dinero de las Instituciones, concejales, junteros, Parlamento Vascongado, pero estas vías sen nos han cerrado y por lo tanto hemos tenido que recurrir a hacer unos bonos de aportación voluntaria y que nosotros estamos seguros que si tú también estás con H.B., podrás colaborar de esta forma, la situación es muy precaria, por eso te pedimos que cuando te entreguen el bono (mensual de 200 pts.), sabiendo el sacrificio que te puede suponer, COLABORES.

## KAS-EN ALTERNATIBA TAKTIKOA

1.- AMNISTIA: TAKTIKOKI EUSKAL PRESO POLITIKO GUZTIEN ASKATASUNA BEZALA ULERTUZ.

2.- LIBERTATE DEMOKRATIKOAK: ALDERDI POLITIKO GUZTIEN LEGALIZAZIOA, HORRETARAKO INDEPENDENTISTEK BEREN ESTATUTOAK JETXI BEHARRIK GABE.

3.- EUSKADITIK G.C., P.A., eta C.G.P.-akoen BOLAKETA.

4.- HERRI ETA BEREZIKI LANGILE KLASEARENTZAT LAN ETA BIZITZA BALDINTZEN HOBEKUNTZA.

5.- ONDOKO BALDINTZA HAUK BETEKO DITUEN AUTONOMIA ESTATUTOAREN LORKETA:

- HEGO EUSKADIKO LAU PROBINTZIA HISTORIKOETAN UNE BEREAN PRAKTIKA BIHUR DADILA.
- EUSKADIRENTZAT NAZIONAL SOBERANIAREN EZAGUPENA. AUTODETERMINAKETARAKO ESKUBIDEAREN ONARKETA. ESTATU INDEPENDIENTE ETA PROPIO BATEN SORRERARAKO ESKUBIDEA SUPOSATUAZ.
- EUSKARA EUSKADIN LEHEN HIZKUNTZATZAT ONARTUA DADILA.
- IFAR ETA HEGO EUSKADIREN ARTEKO HARREMAN NAZIONALEN EZAGUTZA.
- EGUNGO INDAR ERREPRESIBOEN LEKUA HARTUKO DUTEN HIRITAR DEFENTSARAKO INDARRAK EUSKAL GOBERNUAGATIK SORTUAK ETA BEREN MENPEKO DAITEZELA.
- EUSKAL HERRIAK HAINBAT PODERE IZANGO DU NON AURRERABIDERAKO ETA ONGITASUNERAKO UNE BAKOITZEAN BEHARREZKO ZAIZKION EGITURA EKONOMIKO, SOZIAL ETA POLITIKOAK HAUTATZEKO AHALMENA IZANGO BAITU.

## ALTERNATIVA TACTICA DE KAS

1.- AMNISTIA: ENTENDIDA TACTICAMENTE COMO LIBERACION DE TODOS LOS PRESOS POLITICOS VASCOS.

2.- LIBERTADES DEMOCRATICAS: LEGALIZACION DE TODOS LOS PARTIDOS POLITICOS INDEPENDENTISTAS SIN NECESIDAD DE REBAJAR SUS ESTATUTOS.

3.- EXPULSION DE EUSKADI DE G.C., P.A. y G.C.P.

4.- MEJORA DE LAS CONDICIONES DE VIDA Y TRABAJO PARA LAS CLASES POPULARES Y ESPECIALMENTE PARA LA CLASE OBRERA.

5.- ESTATUTO DE AUTONOMIA QUE CUANDO MENOS LLENE LOS SIGUIENTES REQUISITOS:

- ENTRADA EN VIGOR EN LAS CUATRO REGIONES HISTORICAS DE EUSKADI SUR A LA VEZ.
- RECONOCIMIENTO DE LA SOBERANIA NACIONAL DE EUSKADI. DERECHO A LA AUTODETERMINACION INCLUIDO EL DERECHO A LA CREACION DE ESTADO PROPIO E INDEPENDIENTE.
- EL EUSKARA LENGUA OFICIAL PRIORITARIA DE EUSKADI.
- RECONOCIMIENTO DE LOS LAZOS NACIONALES EXISTENTES ENTRE EUSKADI NORTE Y EUSKADI SUR.
- LAS FUERZAS DE DEFENSA CIUDADANAS QUE SUSTITUYAN A LAS ACTUALES REPRESIVAS, SERAN CREADAS POR EL GOBIERNO VASCO Y DEPENDIENTES UNICAMENTE DE EL.
- LAS FUERZAS ARMADAS ACUARTELADAS EN EUSKADI ESTARAN BAJO CONTROL DEL GOBIERNO VASCO.
- EL PUEBLO VASCO ESTARA DOTADO DE PODERES SUFICIENTES COMO PARA DOTARSE EN CADA MOMENTO DE LAS ESTRUCTURAS ECONOMICAS QUE CONSIDERE, SOCIAL Y POLITICAMENTE MAS CONVENIENTES PARA SU PROGRESO Y BIENESTAR.

**INDEPENDENTZIA**
**ETA**
**SOZIALISMOA**




# EUTSI

50 pzta